



### A.2.2. BIDEBARRIETA

#### A.2.2. BIDEBARRIETA

Azalera: 27.062 m<sup>2</sup>

#### I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak

Arane, Urtzaile, Anikitzaneko Zubia, Errebal eta San Agustin kaleen artean eratzten den zona da.

Eremu honetan, dauden eraikin guztiak finkatzea aurreikusten da, ibai ibilguaren gainean kokaturikoak mantenduz, egungo erabilera izaten jarraitzen duten bitartean.

#### II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1, O-AL-AO-2A eta 2B "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Ego ibai-ibilguaren jabari publikoaren gainean kokatutako eraikuntzek duten egoeratik ondorioztatzen diren baldintzak kontuan eduki beharko dira.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

#### III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehaztutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.